

## » TELEGRAMA

**Durangoko Azoka** hemen dugu eta, ekoizpen kulturalen salerosketarako lekua baino askoz gehiago dela erakusteko, kontzertuak, hitzaldiak, filmak... denetik aurkituko du bisitariak abenduaren 4tik 8ra STOP **Lou Topet eta Harkaitz Cano** *Abesti bat gutxiago* egitasmoarekin Gasteizen izango dira abenduaren 4an: Jimmy Jazz aretoa. Sarrera doan. Gonbidapenak Oihaneder Euskararen Etxean eta Hor Dagon STOP **Jupiter Jon** taldeak Errenteria-Oreretako Niessen aretoan kontzertua eskainiko du abenduaren 6an. Duela gutxi argitaratu duten *Eta metaforak greba egin zeben...* disko kanta entzuteko aukera paregabea STOP **Krzysztof Kieslowski** zuzendariari eskainitako zikloarekin jarraitzen du Donostiako Nosferatuk: abenduaren 9an lau labur eskainiko dituzte Tabakalera STOP

## » DISKOA

# Ñabarduretan dago gakoa



**Eratu  
BIDEA**

Mauka, 2015



Iker Barandiaran

Aurreko batean Joseba Ponceri irakurri nion *Berrian*, JP Lohian proiektua aurkezterakoan, “gazte ‘martzianoen’ falta sumatzen” zuela, alajaina, gaur egungo gazteen ia talde guztiek musika eskaintza antzekoa dutela. Bat nator berarekin hein handi batean, baina horri gehituko nioke gaur egungo gazteek oso interes gutxi jartzen dutela eskaintza berri desberdinetan. Askotan pentsatu –eta idatzi– izan dut gure garaian, internet eta youtube ez zeudenean, askoz gehiago arriskatzen genuela ezezagunak ziren taldeen kontzertuetara joaten, erreferentzia txikienarekin edo ezerk lagunduta. Eta halakoak izaten ziren sorpresak gainera, galantak!

Beste ikuspegi batetik, kontzertuak antolatzen aritzen garen tamainan argi eta garbi egiaztatu dezakegu gaur egungo gazteak –30 urtetik beherakoez ari naiz– bospasei musika talde ikusteko daudela prest mugitzeko eta sarre-erosteko. Eskerrak berritasunaren, aniztasunaren eta kalitatearen alde, horietako bat Glaukoma den.

Testuinguru horretan gaur egun sortzen diren talde gehienak halako tribu edo esparru zehatzetan sartzen ditugu; ez da erraza hortik irtetea eta aurrera egitea. Horietako bat dugu Eratu taldea, hirukotea bera eta Ondarroa, Gasteiz eta Aguraingo partaideak dituena. Aurkeztu berri duten azken diskoan, aurrekoetan bezala, metala eta punk-popa dira in-

dar-guneak; biak ala biak 90eko hamarkadatik gaur egunera arte gure artean presentzia handia izan duten estiloak eta nahiko onartuak direnak.

Bada, Eratu taldearen ezaugarrieta-ko bat da –seguruenik partaide bakoitz-herri eta abiapuntu desberdinetik datorrelako– kantuek estilo bat baino gehiago hartzen dutela bere baitan, eta kasu batean baino gehiagotan ia muturreko *tempo*, giro eta emozioekin. Entzule bati baino gehiagori gerta dakioke bata edo bestea aukeratzea, baina ez bien (edo hiruen) uztarketa. Kantuek asko dute melodiatik, norbera gazte-tzeko eta betikotzeko punk-poparen hil ala bizi energetik, baina baita eskola zaharreko thrash eta metal pisutsu eta erraienetakotik ere, besteak beste. Eta kantuak idazterakoan sortzen dituzten giro aldaketetan edo gehitzen dituzten ñabarduratan nabaritzen da taldekideak musikazale amorratuak badirela, eta instrumentalki ere gaitasun handia dutela.

Partaideen eta taldearen eskaintzaren irekieraren isla dira disko honetan ekarpenak egiten dituzten beste musikarien lana ere: Glaukoma taldeko Juantxo Rage Against the Machine berpiztuko lukeen *Eslogan gehienei falta zaien praktika* borobilean; Fer Apoa *Pentsatu, erabaki, hartu* kantu bortitz baina sentikorrean; eta Keu Agirretxea maisua bere gitarrak gehitzen hainbat eta hainbat kantutan. ■

